

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

2119



ARITZ GALARRAGA

Munduko izotzak urtu dira, 66 metro egin du gora itsasoaren mailak, Baiona, Donostia, Bilbo urpean daude. Tenperatura 4'8 gradu igo da, lehorreak handitu dira, euri jasa handiak ugaritu. Betiereko bizitza erdietsi da, jendea ez da berez hiltzen, baina elkar hiltzen du, lekurik ez baitago guztiarentzat –teknika modernoak garatu dira horretarako: urkamena, erreketak, burugabetzea-. Bizkaiera ez da jada euskalki bat, hizkuntza oso bat baizik, bere akademia, bere akademiko, bere akademiakeriekin –eta diputazioarengandik jasotzen duen diru sarrera inportantearekin–: Labayru da Elkar zenaren balio-kidea, Bizkaia Irratia Euskadi Irratiarena, are sortu dute Gaztie izeneko kate bat. Bidasoako errepublika eratu berri da, Pio Baroja izendatu dute aberriaren aita, Borrokan taldearen abesti bat hartu dute ereserkitzat, izokin bat ageri da banderan. Euskal gatazkari buruzko literaturak –gatazka sortu zenetik 150 urtera, itzali zenetik 100era– boom bat bizi du; horren frogarik garbiena da Isham Rashafi idazle gasteiztarrek irabazi duela Nueva Hispania/Nova Hispania/Hispania Berriko Sari Plurinazionala, *Vitoria-Arcturus izar sistema-Vitoria* eleberriarekin. Bidaiez ari garela, Miarritze eta Antares lotzen dituen lehen airebidea inauguratu dute, airetxalupa erabiltzaileen aspaldiko eskaera betez; Arantxa Tapiak inauguratu du, hain zuzen, albistegietan ikusi ahal izan denez. EAJk hauteskundeak irabazi ditu euskal parroikia, merindade, departamendu guztietan. Athleticek, Bilbo utzi behar izan zuenetik Karrantzako Athletic, XIV. mendean Terranovara joandako euskal baleazaleen oinordekoak fitxatu, ez fitxatu debatea ireki du, azkenik. Argia agerkaria astero jarraitzen da argitaratzen: ez hasieran bezala kaputxinoen; ez gero bezala ezkor, taliban, ultra-koherente, jasangaitz batzuen; baizik eta humanoida Begi Latzen eskutik. Baina 2119an, jaio zenetik 200 urtera, Argia jarraitzen da noski argitaratzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“INBESTIDURARAKO ERC-REKIKO NEGOZIAZIOAK ONDO DOAZ”

PEDRO SANCHEZ LONDRESTIK, PSOE-ERC NEGOZIAZIOEZ

Espainiako Gobernuako jarduneko lehendakari Pedro Sanchezek Londresetik luzatutako berbak dira. Dioenez, Kataluniari buruzko negoziazioak beti izango dira Konstituzioa eta Estatutuaren barruan. ERC giltzarri da PSOEek eta Unidas Podemosen eratu nahi duten gobernuaren osatzeko. Ez badu lortzen, seguruenik datozen hilabeteetan hauteskundeak errepikatu beharko dira, hirugarrenez.

ACN (2019/12/4)

